

**16/2022 TXOSTENA, ABENDUAREN 22KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****GAIA: IÑAKI ARISTONDO ICIAR ERAGILE EKONOMIKOARI KONTRATATZEKO DEBEKUA EZARTZEKO ADIERAZPENA****I.- AURREKARIAK.**

**LEHENENGOA.-** 2021eko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez, erreferentziako obrak gauzatzeko proiektua idazteko zerbitzu-kontratu txikia adjudikatu zitzaion IÑAKI ARISTONDO ICIAR eragile ekonomikoari, eta zazpi (7) hilabeteko gauzatzeko epea eman zitzaion (hau da, 2021eko abenduaren 5era arte). Kontratututako proiektuak 2022ko udan erreferentziako obrak egiteko balio behar zuen, eta obraren aurrekontu zenbatetsia 350.000,00 eurokoa izan zen (BEZik gabe).

**BIGARRENA.-** 2022ko martxoaren 26an, gauzatze-proiektuaren «0 alea» jaso zen (posta elektronikoz), gainbegiratzeko. Kontratuaren aurrekontua 333.928,08 eurokoa da, BEZik gabe.

**HIRUGARRENA.-** Hezkuntza Saileko Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzako Eraikuntza Zerbitzuaren 2022ko apirilaren 1eko txostenaren bidez, kontratua suntsiaraztea proposatu zen, kontratua adjudikatzeko ebazpenean emandako epea ez zelako bete; izan ere, proiektuak ez die erantzuten agiri teknikoan eskatzen diren beharrei, definizioak, ez grafikoak, ez idatzizkoak ez dituelako betetzen gauzatze-proiektu baten ezaugarri teknikoak. Era berean, adierazten da hura atzeratuta entregatzeagatik ezin direla obrak aurreikusitako datan egin, 2022ko udan, zehazki.

**LAUGARRENA.-** Kontratazio-organoaren 2022ko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez, «VITORIA-GASTEIZKO JUDIMENDI HLHI-KO (ARABA) IRISGARRITASUN-ARAUDIA HANDITZEA ETA EGOKITZEA» helburu duen kontratazio-espeditentea suntsiarazteari buruzko espeditentea hasteko agindua eman zen, erreferentziako administrazio-kontratua suntsiaraztea egokia den ala ez aztertzeko, IÑAKI ARISTONDO ICIAR eragile ekonomikoak egindako ez-betetzea dela kausa. Ebazpen horren bidez, aipatutako eragile ekonomikoari hamar (10) egun naturaleko epea eman zitzaion, ebazpena jaso zuen egunetik zenbatzen hasita, erreferentziako kontratua suntsiarazteari buruzko alegazioak egin zitzan, erruduntzat jo baitzen ez-betetzeagatik.



**BOSGARRENA.-** Aurreko apartatuan aipatutako hamar (10) egun naturaleko epea igaro denez, kontratazio-espeditante honen egungo kontratistak, IÑAKI ARISTONDO ICIARREK, ez du alegaziorik aurkeztu kontratua suntsiaraztearen bidez kotasunaren harira, zeina ebazpen honen xede baiten ez baititu bete kontratista horrek kontratua gauzatzeko bere gain hartutako betebeharrak. Era berean, ez da agertu kontratua suntsiaraztearen aurka, lehen adierazitako arrazoiak direla kasua; hau da, kontratistak kontratazio-espeditante honetan bere gain hartutako konpromisoak ez betetzea.

**SEIGARRENA.-** Azpiegitura, Baliabide eta Teknologien zuzendariaren 2022ko urriaren 24ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 7.e) artikulua administrazio-kontratazioaren arloan ematen dizkion eskumenez baliatuz, «VITORIA-GASTEIZKO JUDIMENDI HLHI-KO (ARABA) IRISGARRITASUN-ARAUDIA HANDITZEA ETA EGOKITZEA» helburu duen kontratua suntsiaraztea erabaki da, Iñaki Aristondo Iciar eragile ekonomikoak kontratua ez betetzeagatik.

Halaber, Iñaki Aristondo Iciarri legez ezarritako denboran Hezkuntza Sailarekin kontratatzeko debekua adierazteko izapideei ekitea erabaki da.

**ZAZPIGARRENA.-** 2022ko abenduaren 12an, Hezkuntza Sailak zegokion txostena eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, Iñaki Aristondo Iciar eragile ekonomikoari kontratatzeko debekua ezartzeari buruzko espeditantearen izapidean. Tramitaguneren bidez egin zuen, hots, prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez( AAAA\_RES\_5636/22\_07).

## **II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. APLIKATZEKO ARAUDIA ETA TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA**

Kontratatzeko debekuak egoera jakin bat dakar, alegia, egoera horretan dauden pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dutela administrazio-kontraturik egin.

Debeku horiek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 71.etik 73.era bitarteko artikuluetan daude jasota. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28.c) artikuluan ezartzen da Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak txostena egingo duela kontratatzeko debekua ezartzeari buruzko espeditanteen ebazpen-proposamenaren gainean, legez xedatutako kasuetan eta

debekua ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoei dagokienean. Azkenik, aipatutako dekretu horretan ez denez adierazten txosten hori Aholku Batzordearen Komisioek eman behar dutela, Osoko Bilkurari dagokio txostena onartzeko eskumena, Dekretuaren 30. artikulua 1. apartatuaren arabera.

### III. JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK.

Hala, aurrekarietan jasotakoaren arabera, kontratua suntsiarazi zen SPKLren 211.1 artikulua f) letra aplikatuz, zeinetan xedatzen baita suntsiarazte-kausa izango dela kontratuaren betebeharrak ez betetzea. Alde horretatik, adierazten da Iñaki Aristondo Iciarrek ez duela bete kontratua adjudikatzeko ebazpenean emandako epea; izan ere, proiektuak ez die erantzuten agiri teknikoan eskatzen diren beharrei, definizioak, ez grafikoak, ez idatzizkoak ez dituelako betetzen gauzatze-proiektu baten ezaugarri teknikoak. Era berean, adierazten da hura atzerapenarekin entregatu izanak ez duela baimentzen obrak 2022ko udarako aurreikusitako datan egitea.

Halaber, SPKLn ezarritakoaren arabera, kontratua suntsiarazteko kausa da gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, baldin eta hala kalifikatu badira baldintza-agirietan edo deskribapen-agirian, eta bi baldintza hauek betetzen badira:

- 1- 34. artikulua 1. apartatua itun-askatasunerako ezartzen dituen mugak errespetatzea betebeharrak horiek.
- 2- Zehatz, argi eta modu zalantzagabea aipatuta agertzea baldintza-agirietan edo deskribapen-agirian; klausula orokorrak ez dira onartuko.

Aurrekarietan azaldutakoa ikusita, kontratistak kontratatzeko debekua ezartzea dakarren jokabide bat izan zuen, SPKLren 71.2.d) artikuluan adierazten dena zehazki. Artikulu horren arabera, enpresaburu batek ezin du kontraturik egin sektore publikoko erakundeekin kasu hauetan:

- a) Adjudikatzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde adjudikatzea eragotzi badute, SPKLren 150. artikulua 2. apartatua ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio.
- b) Beren alde adjudikatutako kontratua formalizatzeari utzi badiote, SPKLren 153. artikuluan aurreikusitako epeetan, adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.
- c) Kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez badituzte –kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza bereziak barne–, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astuntzat jotzen denean eta, tartean, enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, eta betiere zigorrak ezarri badira edo kalte-galerak ordaindu badira.

d) Lege honen 3. artikuluan azaldutako erakundeetatik edozeinekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin badute eta suntsiarazte-arrazoi horren errudun jo badituzte. Enpresen kontratua suntsiarazten bada kontratistak ez dituelako bete, bere erruz, 211.1.f) artikuluan ezarritakoari jarraituz baldintza-agirietan funtsezkotzat kalifikatu diren betebeharrak, orduan, enpresa horiei ere aplikatuko zaie debekua.

Hortik abiatuta, eta Batzorde honen eskumena zehazteko, kontratatze debekua ezartzea kasu honetan nori dagokion erabaki behar da. Zehazki, SPKLren 71. artikuluen bigarren apartatuan aurreikusitako kasuetan, kontratatze debekua ezartzea kontratazio-organoari dagokio, kasu honetan, Hezkuntza Sailari.

Eta SPKLren 72. artikuluen 7. apartatuaren bigarren paragrafoko d) letraren arabera, kontratatze debekua ezartzeko prozedura ezin izango da hasi kontratuaren suntsiarazpena gauzatu zenetik hiru urte baino gehiago igaro badira, 72.2 d) artikuluan aurreikusitako kasuan.

SPKLren 73. artikuluan ezartzen da debekuaren helmena eta iraupena horretarako prozeduraren bidez zehaztuko direla. Debekuaren iraupenari dagokionez, ezartzen du ezin izango duela hiru urte baino gehiago iraun, debekua dagokion erregistroan inskribatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Debekuak eragina izango duen administrazioaren eremuari dagokionez, SPKLren 73. artikulua xedatzen du kontratatze debekuak eragina izango duela hura ezartzeko eskumena duen kontratazio-organoaren eremuan. Kontratazio-organoa zein sektore publikotan dagoen integratuta, sektore publiko horretara hedatu ahalko da debekua.

Kasu honetan, SPKLren 73.1 artikulua zehazten duen bezala, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 12.4 artikuluekin lotuta, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari dagokio Sailaren kontratazio-organo nagusi gisa jardutea, eta debeku-ezarpen-jarduerak, kasu honetan, Hezkuntza Sailak egiten duen kontratazio-jarduera osoan izango du eragina.

SPKLren 71.1 artikuluan adierazten da ondorengo egoeretako batean dauden «pertsonek» ezin izango dutela sektore publikoarekin kontratatu. Horretaz gain, artikuluen bigarren apartatuan aipatzen da «enpresaburuek zer kasutan ezin izango duten kontratatu...».

Halaber, 71.3 artikuluan ezartzen da enpresek ezin izango dutela kontratatu, baldin eta, zuzendaritzan dauden pertsonen edo bestelako inguruabarrei erreparatuta, pentsa badaiteke enpresa horiek kontratazio-debekua jaso duten beste enpresa batzuen jarraipena direla edo eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bitartez haiengandik datozenak direla.

Debekua ezartzeko prozedurari dagokionez, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu orokorraren 19. artikuluan (APKLEO) adierazten da kontratazio-organoari dagokiola kontratatzeke debekua ezartzeko prozedura hastea, debeku hori eragiten duten gertakariak agerian jartzen badira kontratazio-espeditente baten izapideak egitea dela medio.

APKLEOko aipatutako 19. artikulua bigarren apartatuan adierazten da kontratazio-organoak espeditenteari hasiera ematen dionean, zerbitzu teknikoen eta juridikoen txostenak gehituko zaizkiola espeditenteari, eta, ondoren, entzunaldiaren izapidea bete beharko dela; hori egin ostean, espeditentea organo eskudunari igorriko zaio ebazpena eman dezan edo Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordera, batzorde horri proposamena egitea dagokionean.

Gertatutakoari buruzko txostena eta balorazio juridikoa igorri dira; txostenarekin batera, kontratatzeke debekua ezartzeko ebazpen-proposamen bat egingo da.

Interesdunek aurkeztutako alegazioak jaso ostean, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaio aztertzen ari garen txostena egin dezan; horregatik, ez dago inolako kezarik jarraitutako prozedurari dagokionez.

Kontratazio-organoak ematen duen ebazpena interesdunari jakinarazi beharko zaio (hori eskatzen du APKLEOko 20. artikulua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu beharko da, SPKLren 73.2 artikuluan xedatzen denaren arabera:

«Kontratatzeke debeku guztiak, salbu eta 71. artikulua lehen apartatuko c), d), g) eta h) letretan aurreikusitako inguruabarren bat dutenak, behin dagokien ebazpena emanda, luzamendurik gabe komunikatuko dira, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia-erkidegoetan horren baliokidea den batean inskribatzeko, kontuan hartuta zein den kontratatzeke debekuaren eremua eta zer organok ezarri duen debekua.

Autonomia-erkidegoen, Ceuta eta Melilla hiri autonomoen edo horietako lurraldean dauden toki-entitateen eremuko kontratazio-organoek kontratatzeke debekua jakinaraziko diete dagozkien autonomia-erkidegoetako lizitatzailen erregistroei, edo, halako erregistrorik ez badago, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari.

Lizitatzailen Erregistroan, kontratatzeke debekuaren inskripzioa haren iraupena amaitu eta 3 hilabete igaro ondoren iraungiko da, eta, epe horren ondoren, ofizioz ezeztatu beharko da inskripzioa erregistroan».

Antzeko zerbait aipatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 44., 48.2 eta 50. artikuluetan; izan ere, artikuluko horietan ezartzen da kontratatzeko debekuei buruzko inskripzioak ofizioz egingo dituela erregistroaren kudeaketaren arduradunak, sektore publikoko kontratuen legerian araututako moduan eta erregistroko inskripzio horrek kontratatzeko debekuren batek, erregistroan jaso behar den batek, eragiten ote dion egiaztatuko du.

Azkenik, erregistroan inskribatu ondoren, debekua ondorioak izango ditu, eta inskripzioa debekua amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren iraungiko da. Debekuaren gehieneko iraupena hiru urtekoa da (SPKLren 72. artikulua 6. apartatua) eta ofizioz ezereztu beharko da erregistro horretan hiru hilabeteko epe hori igaro ondoren.

Debekua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da (APKLEOren 20. artikuluko agindua).

#### **IV. ONDORIOAK.**

2022ko abenduaren 12ko eskaeran azaldutakoa eta prozedura hau eragin duen kontratazio-espeditari buruzko dokumentazioa ikusita, aipatutako pertsonari kontratatzeko debekua ezartzearen proposamenaren aldeko txostena egin da. Debekua Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak ezarri beharko luke.

Debekuaren eremua da Hezkuntza Sailak egiten dituen kontratuak, eta haren iraupena ez da hiru urtetik gorakoa izango, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzen denetik aurrera, eta iraunaldia amaitu eta hiru hilabete igarotzen direnean iraungiko da. Halaber, ofizioz ezereztuko da.